

## EUSKALDUN BATEN KANTUA



Makurturikan arech maitea  
Lurra jo arte, orriak  
Lokatsa artian nastubak ditu  
Ez baitu eraman aiziak.

Lañuz betea zerua dago  
Ezin da ikusi argia,  
Illuntasunak beti, betiko  
¿Ostu digute eguzkia?

Ichasotikan ez da agiri  
Dizdiratutzen izarra,  
Euskal-errien begietara  
Gaur agertu da negarra.

Bañan egun bat etorriko da  
Argitasunez betia,  
Orduban danok jakingo dabe  
Zer dan Euskaldun-erria.

Jakingo dabe ez dala izotztu  
Odola euskaldun zañetan,

Biotza ez dala beinbe ikaratu  
Egun arrigarrietan.

Arech ederra loraturikan  
Lañuetara igoko da,  
Euskal-erria zoraturikan  
Bakean arkituko da.

Aize gozoak arech orrian  
Durundu leun, leunagaz  
Kantatukodu uda goizian:  
¡Piztu gerade arechagaz!

Ichasoetan olatu andiak  
Bere betiko ibilleran  
Zeruraño urak jasoko ditu  
Zutik arecha ikustean.

¡A lañu beltzak... illuntasunak!  
Etorrikoda argia!  
Orduan danok jakingo dabe  
Zer dan Euskaldun-erria.

J. C. G-KOAK.

